



Ezezagunok antzerki konpainia bere antzezlan baten emanaldian

Oiasso Museoa izango da berriz ere Aniztasunaren Ekitaldiaren eszenatokia, Chillida Leku eta TOPIC museoekin batera

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaren duen ekitaldi hau musika, dantza eta antzerki festa bat da, aniztasunetik sorkuntzari espazioa emateko.
- Aurtengo Ekitaldia Ana Perezi eskainita dago, Ezezagunok antzerki konpainiaren aktore eta antzerkigile sortzailea.

Aniztasunaren Ekitaldia

Datak:

Urriaren 11, 19:00etan Oiasso Museoan, Irun

Urriaren 12, 18:30ean TOPIC-Tolosa

Urriaren 13, 12:00etan Chillida Leku, Hernani

Prezioa: 5,00 €

Irun, 2024ko urriaren 1a.- Aurten ere, **Oiasso Museoa Aniztasunaren Ekitaldiaren eszenatokietako bat izango da.** Arteak mugarik ez duela aitzakiatzat hartuta, urriaren 11n egingo dute, Oiasso museoan, arratsaldeko 19:00etan; urriaren 12an, TOPIC-Tolosan, arratsaldeko 18:30ean; eta urriaren 13an, Chillida Lekun, eguerdiko 12etan.

Musika eta dantza emanaldiek erakutsiko dute arteak ez duela mugarik, eta museoek etorkizun justu eta iraunkor bat eraikitzeke duten balioa berresteko aukera emango dute.

Aniztasunaren Ekitaldira **gonbidatutako artistak: Iñaki Salvador, Jakes Txapartegi, Simon Ezquiaga, Juncal Cepeda eta Olga Grande, Ezezagunok Antzerki Konpainia, Uikan Dantza Taldea eta Verdini Dantza Taldea,** dantza garaikideko konpainia, aurten Donostiako Udalak ematen duen sarreraren Urrezko Danborra jaso duena.

Oraingo honetan, Emma Larretak berriro aurkeztuko duen galak **Ana Pérez aktore eta antzerkigile eta Ezezagunoken sortzailea omenduko du.** Irabazi-asmorik gabeko antzerki-elkarte hau 2008an sortu zen, eta bere helburua desgaitasun intelektuala duten aktoreekin antzerki-muntaiak jendaurrean prestatzea eta antzeztea da.

Aniztasunaren Ekitaldi hau, **musika, dantza eta antzerki festa bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin** sorkuntzari leku egiteko. Ospakizun horretara jende guztia gonbidatu nahi dugu artista hauen gaitasun handiaz gozatzeko, parte hartzeko eta konpartitzeko, Gipuzkoako hiru museo-inguruetan, aurten ere elkartu direnak ekitaldi hau eskaini ahal izateko.

Ekimen honen bidez, **Oiasso Museoak, TOPICek eta Chillida Lekuk** sortzaile horiei eta beren aniztasunagatik egiten duten lanari babesa eman nahi diete.

Ekimen honen bitartez, Oiasso Museoak, TOPICek eta Chillida Lekuk sortzaile hauei eta euren ezgaitasunetatik egiten duten lanari lagundu nahi diete.

Sarrerak: 5,00 € pertsona bakoitzeko eta museo bakoitzean daude salgai.

Informazio gehiago:

www.topic.eus

www.oiasso.com

www.museochillidaleku.com

Laguntzailea/Con el apoyo de:





Web orria: www.oiasso.com

Sare Sozialak:

Instagram @ museo_oiasso

Facebook @Museo.Romano.Oiasso

Twitter @MuseoOiasso

Prentsarako kontaktua:

Oiasso Museoa

Aizpea Goenaga

agoenaga@irun.org

943 63 93 53